

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: **Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen estimulazio/errehabilitazio programak egiteko laguntza-oinarriak 2025. urtea.**

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Beasaingo udalerrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten eta estimulazio- edo errehabilitazio-tratamendua behar duten pertsonen 2024. urteko gastuak arintzeko laguntzak arautzea da.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuraduna izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

1. Beasaingo udalerrian eskaera egin baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik erroldatuta egotea..
2. Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak errehabilitatzeko edo estimulatzekeo programak ematen dituzten zentro edo instalazioetara joatea.
3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonak 6 eta 25 urte bitartean izatea.
4. 2-3 graduko mendetasuna duen pertsona gisa baloratua edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona gisa baloratuta egotea.

Salbuespenez, 6 urtetik beherakoentzako eskaerak onartu ahal izango dira, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako arreta goiztiarreko programan sartzea ezin denez eta laguntza horien onuradun izateko gainerako baldintzak betetzen badira.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Estimulazio-/errehabilitazio- tratamenduaren urteko gastuaren % 100a jasoko dute familia-unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko diru-sarreraren mugan sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 1.700 €.

2. Estimulazio-/errehabilitazio-tratamenduaren urteko gastuaren % 80 jasoko dute, urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren muga gainditzen duten edo beren egoera ekonomikoa baloratzea nahi ez duten familia-unitateek. Gehieneko zenbatekoa: 1.000 €.

3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonaren gurasoak eta anai-arrebak hartuko dira familia-unitatetzat.

Pertsona independizatua badago, familia-unitatea hark eta, hala badagokio, haren bikotekideak eta seme-alabek osatuko dute.

4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga 2024. urtea, unitate familiarren neurriaren arabera:

- 1 pertsona: 15.132,24 €
- 2 pertsona: 20.176,38 €
- 3 edo gehiago: 23.202,90 €

Laguntzak aurreko ekitaldiko errehabilitazio- edo estimulazio-tratamenduen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskaerak aurkezteko epea kontatzen hasiko da, eta 2025-06-30ean amaituko da.

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean, jendeaurreko ordutegia

Posta arruntaren bidez

Telematikoki: www.beasain.eus